

Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta (FAI)
2022. urtea

2022an etxeko batez besteko gastua 35.029,48 eurokoa izan zen, eta % 7,2 igo zen aurreko urtearekin alderatuta

Etxeko batez besteko gastua batez ere garraioan eta jatetxe eta hoteletan igo zen

Pertsonako batez besteko gastuak % 7,9 egin zuen gora 2021. urtearekin alderatuta

2023ko uztailaren 28a

GASTUAREN BILAKAERA¹

2022an, etxeko batez besteko gastua 35.029,48 eurokoa izan zen, eta aurreko urtearekin alderatuta % 7,2 igo zen, beraz.

Bestalde, egoitza Nafarroan duten etxeen gastu osoak % 8,5 egin zuen gora, eta pertsonako batez besteko gastua 14.189,64 eurokoa izan zen, 2021. urtearekin alderatuta igoera % 7,9koa izanik.

1. TAULA

Gastu osoa, batez besteko gastuak eta urteko aldakuntza-tasak. 2022. urtea

	Gastua *	Urte arteko aldakuntza %
Gastu osoa	9.247.641,93	8,5
Batez besteko gastua etxeko	35.029,48	7,2
Batez besteko gastua pertsonako	14.189,64	7,9

* Gastu osoa mila eurotan dago adierazita eta batez besteko gastuak eurotan

¹ FAIko batez besteko gastuak eta horien taldekako banaketa urteko datu arruntetan aurkezten dira.



Etxeko batez besteko gastuak aztertutako talde gehienetan egin zuen gora. Hauek izan ziren igoera handienak izan zituztenak:

- *Garraioa*. Igoerarik aipagarriena izan zuen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta % 46,5ekoa, eta atal guztietan igo zen: ibilgailuen erosketan, ibilgailu pertsonalak erabiltzean eta garraio-zerbitzuetan. Etxeko batez besteko gastua 4.362,91 eurokoa izan zen, 2021ean baino 1.385,24 euro gehiago.
- *Jatetxeak eta hotelak*. Urte arteko tasa % 21,1ekoa izan zen, bai jatetxeetako bai ostatu-zerbitzuetako gastuaren igoeraren ondorioz. Etxeetan 3.534,17 euro gastatu ziren kontzeptu horietan, 2021ean baino 615,52 euro gehiago.
- *Alkoholodun edariak eta tabakoa eta Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak*. Igoera % 13,5ekoa eta % 6,6koa izan da, hurrenez hurren, eta etxeko batez besteko gastua 468,04 eurokoa eta 5.909,66 eurokoa izan da, hurrenez urren, aurreko urtean baino 55,82 eta 367,61 euro gehiago.

Bestalde, etxeko batez besteko gastua beste talde hauetan jaitsi zen gehien:

- *Altzariak, etxeko gauzak eta etxearen mantenimendu arrunterako gaiak*: kasu honetan aldakuntza-tasa negatiboa % 27,1ekoa izan zen eta etxeko batez besteko gastua 1.195,90 eurokoa.
- *Irakaskuntza*: -% 27 jaitsi zen, eta etxeko batez besteko gastua 444,35 eurokoa izan zen.

2. TAULA

Batez besteko gastua etxeko, banaketa ehunekotan eta urteko aldakuntza. 2022. urtea

	Batez besteko gastua etxeko (euroak)	Banaketa ehunekotan	Urte arteko aldakuntza %.	Urteko alde absolutua (euroak)
GUZTIRA	35.029,48	100	7,2	2.352,70
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	5.909,66	16,9	6,6	367,61
Alkoholodun edariak eta tabakoa	468,04	1,3	13,5	55,82
Jantziak eta oinetakoak	1.455,85	4,2	-0,2	-2,68
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk	11.377,20	32,5	5,4	585,81
Altzariak, etxeko gauzak eta etxearen mantenimendu arrunterako gaiak	1.195,90	3,4	-27,1	-444,60
Osasuna	1.238,09	3,5	-5,4	-70,16
Garraioa	4.362,91	12,5	46,5	1.385,24
Komunikazioak	928,12	2,6	-5,4	-53,49
Aisia eta kultura	1.896,96	5,4	1,8	32,65
Irakaskuntza	444,35	1,3	-27,0	-164,37
Jatetxeak eta hotelak.	3.534,17	10,1	21,1	615,52
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	2.218,22	6,3	2,1	45,33



Etxeetako gastuaren banaketari dagokionez, gasturik handiena hiru talde handitan metatu zen:

- Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk: talde honetako gastuak etxeko aurrekontu osoaren ia herena hartu zuen (% 32,5).
- Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak: aurrekontuaren % 16,9 hartu zuten. Aipagarrienak izan ziren kontsumo hauek: haragia (gastu osoaren % 4,4), ogia eta zerealak (% 2,2), egoskariak, barazkiak eta patatak (% 2,1), arraina (% 2,0), frutak (% 1,9) eta esnea, gazta eta arrautzak (% 1,8).
- Garraioak etxeko aurrekontu osoaren % 12,5 hartu zuen.

KONPARAZIOA PANDEMIA AURREKO EGOERAREKIN

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, etxeetako kontsumo-ohiturak aldatu egin ziren 2020an. Horrek ekarri zuen gastua gutxitzea, eta gastu hori 2021ean hasi zen leheneratzen eta leheneratze hori 2022an osatu da, etxeko batez besteko gastua 1.119.73koa izan baitzen, 2019koa baino % 3,3 gehiago.

Gastua leheneratu zen batez ere Elikagai eta alkoholik gabeko edarietan (2019an baino 964,69 euro gehiago) eta Etxebizitzan (1.446,90 euro gehiago), eta bi adar horietan gastuak % 19,5 eta % 14,6 egin zuen gora, hurrenez hurren.

Beste adar batzuek, aldiz, ez dute 2019ko maila berreskuratu, eta adar horiek dira Jantziak eta oinetakoak (- 23,7), Irakaskuntza (-% 17,7) eta Altzariak, etxeko gauzak eta etxearen mantentze arrunterako gaiak (- % 13,0).



3. TAULA

Etxeko batez besteko gastua eta aldakuntza-tasa gastu-taldean arabera. 2022. eta 2019. urteak

	Batez besteko gastua etxeko (euroak) 2022. urtea	Batez besteko gastua etxeko (euroak) 2019. urtea	Aldakuntza (%) 2022/2019
GUZTIRA	35.029,48	33.909,75	3,3
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	5.909,66	4.944,97	19,5
Alkoholodun edariak eta tabakoa	468,04	500,44	-6,5
Jantziak eta oinetakoak	1.455,85	1.909,02	-23,7
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk	11.377,20	9.930,30	14,6
Altzariak, etxeko gauzak eta etxearen mantenimendu arrunterako gaiak	1.195,90	1.374,49	-13,0
Osasuna	1.238,09	1.202,54	3,0
Garraioa	4.362,91	4.210,47	3,6
Komunikazioak	928,12	976,91	-5,0
Aisia eta kultura	1.896,96	1.949,55	-2,7
Irakaskuntza	444,35	539,80	-17,7
Jatetxeak eta hotelak.	3.534,17	3.890,68	-9,2
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	2.218,22	2.480,56	-10,6

EMAITZAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

Nafarroako Foru Erkidegoa 2022an pertsonako batez besteko gasturik handiena izan duen hirugarren autonomia-erkidegoa da (14.189,64 euro), Euskal Autonomia Erkidegoaren (15.103,46 euro) eta Madrilgo Komunitatearen (14.325,91 euro) atzetik.

Euskal Autonomia Erkidegoan pertsonako batez besteko gastua batez besteko nazionala baino % 18,2 handiagoa izan zen, eta jarraian Madrilgoa % 12,1 handiagoa eta Nafarroakoa % 11,0.



4. TAULA

Etxeko eta pertsonako batez besteko gastua bizileku den autonomia-erkidegoaren arabera.
2022. urtea

	Batez besteko gastua etxeko (euroak)	Batez besteko gastua etxeko (euroak)
Nazionala guztira	31.567,71	12.779,54
Andaluzia	29.509,58	11.530,71
Aragoi	31.480,70	13.337,96
Asturiasko Printzerria	29.251,91	13.364,23
Balear uharteak	35.736,49	13.714,51
Kanariak	27.489,84	10.697,57
Kantabria	28.965,13	12.278,11
Gaztela eta Leon	29.850,00	13.187,73
Gaztela-Mantxa	27.632,73	10.959,46
Katalunia	33.084,98	13.478,76
Valentziako Komunitatea	29.969,08	12.292,13
Extremadura	26.634,72	11.134,48
Galizia	31.115,19	13.007,95
Madrilgo Komunitatea	36.197,93	14.325,91
Murtziako eskualdea	31.456,52	11.662,38
Navarrako Foru Erkidegoa	35.029,48	14.189,64
Euskal Autonomia Erkidegoa	35.454,96	15.103,46
Errioxa	29.320,94	12.471,97
Ceuta	32.291,31	11.407,33
Melilla	28.273,64	9.145,97





OHAR METODOLOGIKOA

Familia Aurrekontuei buruzko Inkestak (FAI) kontsumo-gastuen ezaugarriari eta helburuari buruzko urteko informazioa ematen du, baita etxeetako bizi-baldintzei buruzko beste hainbat ezaugarriari buruzkoa ere.

Kontsumo-gastuetan sartzen da bai etxe batek kontsumo-ondasun eta -zerbitzu jakin batzuk ordaintzera bideratzen duen dirua, bai autokontsumo, autohornidura, gauzako soldata, doako edo hobari moduko otordu edo bizileku den etxebizitzaren alokairu (etxebizitzaren jabea bada edo beste familia edo erakunde batzuei lagata badu) moduan jasotako ondasunen balioa. Gastuak eskuratze-unean erregistratzen dira, ordainketa eskura edo epeka egiten den kontuan hartu gabe.

- **Inkesta mota:** Urtekoa
- **Biztanle-eremua:** Etxe pribatuak
- **Eremu geografikoa:** Espainiako lurraldea
- **Emaitzak zer eperi dagozkion:** Urte naturala
- **Laginaren tamaina:** 24.000 etxe (gutxi gorabehera)
- **Laginketa-mota:** Bietapikoa, lehen etapako unitateen estratifikazioarekin.
- **Biltzeko metodoa:** Mistoa, zuzeneko idazketa eta elkarrizketak etxeekin.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

